

Jueves 31 de mayo de 2007

'Gazteak eta drogak' gaia jorrazteko, Askagintza elkarlanean aritu da Ikastolen Elkarterekin

DBH-KO IKASLEEI ZUZENDUTAKO TXOSTEN BAT EGIN DU
ASKAGINTZAK GAZTEAK HAUSNARKETARA BULTZATUZ

JASO IKASTOLA

IRUÑEA. Lehengo urtean eta Ikastolen Elkartek antolatzen dituen besta erraldoietan gertatzen zena ekidin nahian, Gipuzkoako Ikastolen Elkartea Askagintza elkarterekin jarri zen harremanetan, bien artean ea horren aurrean zer egin zitekeen aztertzeke.

Droga-mendekotasunen fenomenoaren zergatien kontra Euskal Herriko eremuan ikuspegi sozial batetik lanean diharduen herri erakundea da Askagintza. Droga-mendekotasunen gaiarekin sentsibilizatuta zeuden pertsonak, lagunek eta, batez ere, seme-alaba toxikomanoak zituzten amek pairatzen ari ziren arazoei erantzuteko elkartzen hasi zirenean sortu zen Askagintza. Izan ere, drogaren menpeko pertsonak tratatzeko baliabiderik eta prebentzio programarik ez zegoen orduan inon.

Ildo horretan, garbi dago testuinguru zehatz baten ondorioz jaio zela erakundea, hau da, droga konkretu baten inguruan, heroinaren inguruan. Droga honek hainbat ondorio sortu zituen gizartean, besteak beste, heriotzak sobredosiaren edo droga aizunketaren edo adulterazioaren ondorioz, zenbait pertsona degenerazio edo endekapen-prozesu larrietan murgildu zituen eta, hori guztiaren ondorioz, gizartean alarma sozial bat eragin zuen. Kontutan hartzekoa da, bestalde, droga trafikiko sarean arduradunek eta onuradunek gai hori manipulatu eta erabiltzen zutela, gizartea kontrolatuz, isilmandatarien sareak eta poliziaren ustelkeria sortuz eta trikimailu ugarien bitartez.

TXOSTENA Duela gutxi oso txosten interesgarria kaleratu du Askagintza, hain zuzen, DBHko hainbat mailetan lantzeko materiala aproposa eskaintzen duen txostena. Lanaren izena: *Primeran pasa, "pasatu gabe": alkohola eta festak* da.

Hausnartzeko txostena da, beraz, tutoreek eta ikasleek hausnartzeko bideak,

OHARRAK

Arazoa.

Ikastolen Elkartek antolatzen dituen besta erraldoietan gazte ugari alkohola edaten zutela ikusita, Gipuzkoako Ikastolen Elkartea Askagintza erakundearekin jarri zen harremanetan.

Askagintza.

Droga-mendekotasunen fenomenoak Euskal Herrian lantzen duen elkartea da.

Txostena.

Askagintzak DBHko ikasleentzako aproposa den txosten bat kaleratu berri du. Bertan, droga kontsumoen inguruan

aholkuak eta ikasbideak eskaintzen ditu.

Hauxe da koaderno honetan Askagintzak proposatzen duena: "14, 15, 16 urteko neska-mutil askoren gaitasun eta adimenaren berri badugu. Hauek dituzten baloreak, jarrerak eta jokabideak ere ezagutzen ditugu, horietako asko eta asko zenbait esparrutan eta ekintzetan positiboak eta osasungarriak direlarik. Ikasi ikasten dute, dibertitzeko gai dira, ligatzen ibiltzen dira, kirola egiten dute eta ondo elikatuak daude, bai kaki aldetik, baita emozionalki, afektiboki eta sexualki ere.

Baina jakin badakigu baita ere, neska-mutil askoren jokabideak arriskutsuak izaten direla, eta horregatik ahalegindu behar dugu arrisku horiek eta sortzen dituzten kalteak murrizten.

Alkoholaren inguruan espektakulo lotsagarri asko ikusten ditugu behin baino gehiagotan, dela nerabeek "heldu" izateko saiakeretan ari direla, dela helduak "gazte" izateari utzi ziotenekoa oroitu nahian dabiltzala..

Gauzak horrela, hona hemen egiten den proposamena: droga kontsumo horien inguruan pentsatu eta hausnartzea".

pentsatu eta hausnartzera animatzen ditu ikasleak, eta baita irakasleak ere.

OTROS ARTÍCULOS DE Sociedad :

- ☰ [**Ikastola bestarako prest**](#)
- ☰ [**Bartzelonara egin dute ikasbidaia DBH 4. mailakoek**](#)
- ☰ [**Euskara eta elkarbizitza uztartzeko, Kidetza plana jarri dute martxan Jason**](#)